



## **Arautegia**

### **Krosa 2015**

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzak, Euskadiko Atletismo Federazioarekin lankidetzan, Euskadiko XXXIV. Eskolarteko Kirol Jokoak antolatuko ditu 2015eko otsailaren 22an Ordizian (Gipuzkoa).

**I. Artikulua.-** Txapelketa honetan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetako selekzioan dauden infantil mailako kirolariek hartu dezakete parte (2001 eta 2002an jaioetakoak), hala nola, eskola kiroleko taldeak eta eskola kiroleko kanpainetan inskribatuta dauden elkarteak (3 talde lurralde historiko bakoitzeko, gizonezkoen kategorian nahiz emakumezkoetan).

**II. Artikulua.-** Lurralde-selekzioko talde bakoitzak, gehienez 6 kirolari aurkeztu ahal izango ditu. Bai gizonezkoetan, baita emakumezkoetan ere.

**III. Artikulua.-** Ikastetxe edo elkarte bakoitzeko taldeek, gutxienez 4 eta 6 kirolari aurkeztu beharko ditu, bai gizonezkoen kategorian bai emakumezkoetan ere.

**IV. Artikulua.-** Ikastetxe bakoitzeko taldeek hurrengo araudia bete beharko dute:

- Taldea 6 kirolariz osatuta badago, gutxienez lauk ordezkatzten duten ikastetxeakoak izan beharko dute.
- Taldea 5 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzten duten ikastetxeakoak izango dira.
- Taldea 4 kirolariz osatuta badago, gutxienez hiruk ordezkatzten duten ikastetxeakoak izan beharko dute.

**V. Artikulua.-** Klubak derrigorrez, bertakoak diren kirolariz osatuta egon behar dira eta beraien lurralde historikoko eskola kiroleko programetan izena emanda egon behar dira.

**VI. Artikulua.-** Taldeen sailkapena, edozein kategoriatan, lasterketa bakoitzetik eta talde bakoitzetik lehenengo lau kirolariak oinarritzat hartuta egingo da, talde bakoitzeko puntuazioa 4 kirolarien sailkapenen batura eginez. Bi talde edo gehiagoren artean berdinketa izan ezker, laugarren kirolariaren sailkapena kontuan hartuko da.



**VII. Artikulua.-** Hurrengo lasterketak ospatuko dira, aurreikusitako gutxi gorabeherako luzera eta ordutegiaz.

| Kategoria        | Distantzia | Ordua |
|------------------|------------|-------|
| Infantil mutilak | 3.900 m    | 11.00 |
| Infantil neskak  | 2.600 m    | 11.20 |
| Sari banaketa    |            | 12,15 |

**VIII. Artikulua.-** Euskadiko Infantil Mailako Eskolarteko Kross Txapelketarako izen-emateak lurralde ezberdinetako Foru Aldundietako kirol zerbitzuetan egin beharko dira 2015eko otsailaren 13an, arratsaldeko 20:00ak baino lehen. Hauek Euskadiko Atletismo Federazioara helarazi, otsailaren 17an arratsaldeko 14,00ak baino lehen.

**OHARRA:** Dortsalak froga egunean bertan, otsailak 22an, emango zaizkio zirkuituko idazkaritza nagusian talde edo selekzio arduradunari.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren 2015eko urtarrilaren 30eko AGINDUA, 2015eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIV. edizioaren deialdia egiteko dena
- Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2015eko otsailaren 2ko EBAZPENA, 2015ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXIV. edizioaren epaile bakarria izendatzen dena.
- IAFFak duen nazioarteko txapelketen araudia.